



HAL
open science

Irudien bizia J. B. Elizanbururen "Nere etxea"-n
Aurélie Arcocha-Scarcia

► **To cite this version:**

Aurélie Arcocha-Scarcia. Irudien bizia J. B. Elizanbururen "Nere etxea"-n. Euskera. Euskaltzian-
dia'ren lan eta agiriak. Trabajos y actas de la Academia de la Lengua Vasca. Travaux et actes de
l'Academie de la Langue Basque, 1992, 37, pp.109-135. artxibo-00944686

HAL Id: artxibo-00944686

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00944686>

Submitted on 11 Feb 2014

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

**IRUDIEN BIZIA J.B. ELIZANBURUren
NERE ETXEA-n**

Sara, 1991-XII-21

Aurelia Arkotxa Mortalena

“En moi rêve donc une force rêvante, une force qui a rêvé jadis,
dans des temps très lointains et qui revient ce soir s’animer dans une
imagination disponible.”

G. Bachelard
(*L’Air et les Songes*)

Nork ez du hemen Elizanbururen *Nere etxea* ezagutzen?

Kantu hori, nik ere ttipi-ttipitik entzuna izan dut Oilandoi eta Auza-ko mendiaren gerizapean bizi nintzelarik.

Eta, nahiz nik, bakarrik lehendabiziko bi bertsoak dakizkidan gogoz, aitak, muttiko bat zelarik, Baigorri ikasi zituen kantatzen hamarrak burutik... Amak ere, mugaz bertzaldeko Baztango bailaran, ene amatxi zenaren altzoan ikasi zituen bertsu horiek berak nexka koxkor bat zelarik...

1862-an, laster ehun eta hogeitamar urte beraz, J.B. Elizanburuk *Nere etxea* presentatu zuen Urruñako A. d’Abbadie d’Arrast-ek antolatutako xapelketan, bertze bi kantuekin: “Apexa eta Lorea” eta “Agur Herriari”. Harrigarria da kantu honek segiduan ukan zuen arrakasta zazpi probintzietan.

Gaur ere, D. Landartek dio, kantuak, eta bereziki lehendabiziko bertsoan aurkitzen diren irudiek, harendako izan duten inportantzia:

“Ikusten duzu goizean
Argia hasten denean
Menditto baten gainean”
Euskal Herrian, kantatzen diren
Kantu guzien artean
Hori da bertzen aldean
Nik dutana bihotzean
Xoratzen bait nau kolpean!” (1)

(1) Daniel LANDART, 1991, in *Herria* 2089 zenb. I 31.

Zergatik bada horrelako sekulan ahuldu izan ez den arrakasta? Eta zergatik hainbertzetan aipatzen ote dira lehendabiziko bi bertsoak (2) eta bereziki, lehendabizikoa? Hitz batez, hor dauden irudiek zer neurritan oihartzun sakon bat aurki ote dezakete gure elkarrekilako inkonzientean (3)?

(2) Hauxe da ELIZAN/BURUREN jatorrizko lehendabiziko bi bertsoak:

“Ikusten duzu goizean,
Argia hasten denean,
Menditto baten gainean,
Etxe ttikitto aitzin xuri bat
-lau haitz handiren artean,
Iturritto bat aldean,
Xakur xuri bat atean,
Han bizi naiz ni bakean!

Nahiz ez den gaztelua
Maite dut nik sorlekua
Aiten aitek hautatua;
Etxetik kanpo zait iduritzen
-nonbait naizela galdua
Nola han bainaiz sortua
Han utziko dut mundua
Galtzen ez badut zentzua!”

(in Elizanburu-*Ikusten duzu goizean eta bertze...*, 23 or.)

(3) FREUD-i (1856, 1939), zor baldin badiogu inkonzientearen konzeptua, hastapenean haren dizipulu mina zen C.G. JUNG-i (1875-1961) diogu zor elgarrekilako inkonzientearena*. Hona honek nola ezberdintzen dituen bi konzeptuak:

“On peut distinguer d’abord *l’inconscient personnel* qui renferme toutes les acquisitions de la vie personnelle: ce que nous oublions, ce que nous refoulons, perceptions, pensées et sentiments subliminaux. A côté de ces contenus personnels, il en existe d’autres, qui ne sont pas personnellement acquis; ils proviennent des possibilités congénitales du fonctionnement psychique en général, notamment de la structure héritée du cerveau. Ce sont les connexions mythologiques, des motifs, des images qui se renouvellent partout et sans cesse, sans qu’il y ait tradition, ni migration historique. Je désigne ces contenus en disant qu’ils sont *inconscients collectifs*”. (C.G. JUNG in *Types psychologiques*. 448 or.)

* Bi psikoanalistek bereziki inkonzienteari buruz dauzkaten ikuspegi ezberdinei buruz, ikus C.G. JUNG en *Ma vie* (173 orrialdetik 197.arte), *Essai d’exploration de l’inconscient, Dialectique du moi et de l’inconscient* e.a.

Bertzalde JUNGEk dio:

“Si elle dispose de sources de toute évidence personnelles, la fantaisie créatrice dispose aussi de l’esprit primitif oublié et depuis longtemps enfoui avec des images particulières révélées dans les mythologies de tous les temps et de tous les peuples. L’ensemble de ces images forme *l’inconscient collectif* donné in *potentia* par hérédité à chaque individu (...). Aussi est-il naturel que nous rapprochions les mythologèmes les plus distants dans le temps et les peuples les plus éloignés d’un système de fantaisie individuelle. La base créatrice est en effet partout la même psyché humaine, le même cerveau humain, qui, avec des variantes relativement de peu d’importance, fonctionne partout de la même manière” (C.G. JUNG en *Métamorphoses de l’âme et ses symboles* 42/43 or.)

Euskal elkarrekilako inkonzientean, ikus A. ORTIZ-OSesen obra.

Hona, *Nere etxean* dauden azpiko egituretan barna bidaia labor hau egitera bultzatu nauten galderak.

I. BI EREMU SINBOLIKO

1. Munduaren erdia

Etxea mendi gainean kokatua dago, nahiz eta usaian ez den horrelako tokirik hautatzen etxe bat eraikitzeko tenorean (4).

Baina, mugimenduan dabilen irudia arketipikoa (5)enez, hemen den gauza inportanteena etxea leku garrantzitsuenean, munduaren erdian, dagoela erakustea da beharrezko. Ez bertzerik.

Mendi kaskoan izatea, zerua eta lurra elkar gurutza ditezkeen eremu sakratuan izatea da (6). Negurri horretan, etxea hemen tenplo da (7), munduaren xilko (8).

Bertze eremu imaginario batek ideia berdina azpimarratuko du.

(4) Gure antzinakoek, etxe bat eraikitzeko tenorean, kasu egiten zuten ahal bezainbat leku aterbetsuan eraikia izan zedin. Bainan hemen ez da hori kontua, hemen erakutsi behar dena da etxearen inportantzia, beraz, leku egokiena mendi *gaina* izanen da.

(5) JUNGEK *elgarrekilako inkonzientearen* oinarrizko irudiak *arketipoak* deitzen ditu. Hona hark berak emanikako xehetasun batzu:

“L’image primordiale, que j’ai par ailleurs appelée aussi “archétype” est (...) toujours collective, c’est à dire commune au moins à tout un peuple ou à toute une époque”. (C.G. JUNG in Types psychologiques 434 or.)

“J’appelle *primordiale* toute image de caractère archaïque, autrement dit qui présente une concordance remarquable avec des motifs mythologiques connus”. (C.G. JUNG in *op. cit.* 214 or.)

“(…) la propagation universelle des archétypes ne s’opère pas simplement par la tradition, le langage et par les migrations mais ils peuvent à tout moment et partout réapparaître spontanément, et cela sous une forme qui n’est nullement influencée par une transmission venue de l’extérieur”. (C.G. JUNG in Les racines de la conscience 94 or.)

(6) Ikus M. ETCEHANDYK hilarri borobilaz dioena:

“Il est un autre aspect de la discoïdale dont il faut essayer de rendre compte. Dans un monument si simple et si rigoureux rien n’est laissé au hasard ou à la fantaisie. Pourquoi donc, traditionnellement, le socle en est-il très souvent trapézoïdal? Dans l’imaginaire religieux la montagne tient une très grande place. Elle est le lieu où la terre s’étire à la rencontre du ciel. (...) La gravir c’est monter au ciel. Innombrables sont les montagnes sacrées, naturelles, ou artificielles comme les ziggourats (...) de Mésopotamie, les pyramides d’Egypte ou des civilisations précolombiennes. La symbolique chrétienne s’inscrit dans cette perspective (...)” (in *Les stèles discoïdales basques* 8/9 or.)

2. Lau erditua (9)

Kasu honetan, Elizanbururen testuak jasan dituen aldakuntzek beren garrantzia badute.

Ikus J. CHEVALIER eta A. GHEERBRANDT:

“(La montagne) en tant qu’elle est le centre des hiérophanies atmosphériques et de nombreuses théophanies, (...) participe du symbolisme de la manifestation... Elle est ainsi *rencontre du ciel et de la terre* (...). Vue d’en haut, elle apparaît comme la pointe d’une verticale, elle est le centre du monde, vue d’en bas, de l’horizon, elle apparaît comme la ligne d’une verticale, l’axe du monde, mais aussi l’échelle, la pente à gravir.” (in Dictionnaire des symboles, begira “Montagne”)

eta ere G. de CHAMPEAUX eta dom S. STREKX:

“(...) la montagne sacrée est un centre du monde. (...) tout lieu sacré est un centre, et (...) le centre sacré naturel le plus parfait est une montagne sainte.” (in *Introduction au monde des symboles* 166 or.).

(7) Ikus J.M. BARANDIARANek, Euskal Herriari pentsatuz, dioena:

“El *etxe* es templo (...) es lugar sagrado protegido por el fuego del hogar (...) por diversas ramas de espino albar, de fresno y de las flores solsticiales. Por la flor del cardo silvestre, símbolo del Sol; por el hacha y la hoz dotadas de poderes místicos; por ser morada de espíritus de antepasados o lugar visitado por éstos; por la perennal ofrenda de luz que allí se enciende a las almas, procurando conservar el fuego del hogar conforme a una ritual prescripción o norma de “alumbrar a los muertos siquiera sea con una pajuela”; por la práctica de depositar sobre las repisas exteriores de las ventanas piadosas ofrendas de comestibles destinadas a los difuntos de la casa; por la costumbre antigua de orientar las casas de suerte que su entrada principal mire al sol naciente, y, finalmente, porque la casa es cementerio familiar.” (in *Mitología vasca* 56/67 or.).

Ikus ere in *Etxea*, Lauburu batasunak agertutako talde lana.

Eta ere, G. de CHAMPEAUXek eta dom S. STREKXek tenploak unibertsalki duen lehen-dabiziko erranahiaz diotena:

“(...) le schéma général et naturel de temple, c’est le paysage élémentaire constitué par la colline avec sa grotte, des pierres, l’arbre et la source, le tout circonscrit et protégé par une enceinte annonçant le caractère sacré du lieu.” (in *op. cit.* 297 or.).

(8) Grekoen *onfaloz*. Ikus A. ORTIZ-OSESEK dioena:

“El carácter arcáico, tanto de la Gran Diosa mediterránea como de la Gran Diosa vasca, es su *maternidad ctónica*, tan bien representada por el *Onfalos* traído de Creta a Delfos, representando un pequeño túmulo que recubre los restos del parto de Rea.” (in *Antropología simbólica vasca* 107 or.).

(9) Ikus G. de CHAMPEAUX eta dom S. STREKX:

“(La symbolique chinoise) nous a réappris à ne jamais considérer les quatre côtés du carré ou les quatre bras de la croix hors de leur relation nécessaire au centre de la croix ou au point d’intersection de ses bras. Sans jouer sur les mots, on pourrait dire sans tromper que *ce cinquième point* est le plus important de la quaternité. Comme le cercle, le carré est une figure centrée.” (in *op. cit.* 31 or.).

Adibidez, hastapenean idatzi zuen etxea “lau haitz handiren artean” zegoela. Herria (= elkarrekilako inkonzientea) jabetu eta gero lau haitzondoren erdian atxematen dugu.

Badakigu “arteana” ezarri zuela autoreak errima arazo batzuenatik, gainerako neurtitz erriomadunetan *-ean* baitago (10). Zergatik horrelako aldakuntza gertatu ote da?

Egia da arraz zaila dela etxe hori lau haitzen arte batean, edozein lekutan, kokatzea eta zergatik ba hori? Lau zenbakiaren presentzia dugulakotz eta lau denean borts erdian izaten baita beti (11). Erran nahi da herriak duela arrazoin errima ez errespetatuz (*arteana/erdian*), horrela baitio bakarrik indar guziaz ematen ahal lautasunaren arketipoari (12). Lau

Halaber, ikus M. L. von FRANZ:

“La grande signification du quinconce, du quatre centré, se retrouve sous sa forme fondamentale dans l'ensemble de l'ancienne théorie chinoise des nombres. (...) Le cinq est le centre du quatre. Le carré représente la totalité du royaume ainsi que chaque temple; on l'utilisait comme élément de base pour tracer tous les camps militaires et les plans des villes.” (in *op. cit.* 133 or.)

(10) Ikus 2.nota.

(11) Horrek esplikatu lezake zergatik Guilbeau medikuak berak, bere mintzaldiaren frantses itzulpenean, **ez duen arteana ezarri, baizik eta erdian**:

“Voyez-vous le matin-quand la lumière commence-sur une petite montagne, -une petite maison à la façade blanche, au milieu * de quatre chênes, -une petite fontaine sur le côté, -un chien blanc à la porte? -C'est là que je vis en paix.” (“Chers compatriotes Basques” in J. VINSON, *Revue de Linguistique et de Philologie Comparée*, tome 31, 15 Juillet 1898, 206 or.)

* Nik azpimarratzen dut.

Bere euskal mintzaldian, Guilbeauk J.B. Elizanbururen kantuaz arraz hurbil den bertso hau presentatzen du:

“Ikusten duzu goizean,/Argia asten denean,/Menditto baten gainean,/Etche tiki aintzin churibat, lau haitz handiren *arteana*,/Iturritto bat aldean,/Chakur churi bat atean,/Han bizi naiz bakean.” (“Eskualdun Herritar Maiteak” in *op. cit.* 198/199 or.)

(12) Ikus M.L. von FRANZ, C.G. JUNGEN ikasle eta dizipuluak ekartzen dituen xehetasunak:

“Qu'est-ce qui *distingue* le nombre naturel d'autres symboles archétypiques tels que la roue solaire, l'arbre de vie etc.?”

(...) Jung a défini le nombre naturel comme l'*archétype de l'ordre devenu conscient*. Cela voudrait dire que notre idée de l'ordre possède un aspect préconscient, autrement dit, qu'il repose sur une disposition innée de notre psyché préconsciente. (...) Contrairement aux symboles numériques et à certains symboles géométriques, qui rendent conscient un “pur arrangement”, la plupart des autres symboles connus de l'esprit humains sont des *images* dont la forme est partiellement empruntée à l'expérience du monde extérieur: ainsi “l'arbre de vie”, “l'animal totem”, “l'eau de vie”, le “monde souterrain”, le “feu-esprit”, etc.” (in *op. cit.* 150/151 or.)

erdiuaren indarra hain da azkarra elkarrekilako inkonizientean non erri-maren ez errespetatzeak, beraz ikuspeki intelektual batean huts baten egiteak, batere ez duen inportantziarik. Erdi hori baitugu preseski “Imaginarioaren gurutzebide handia” (13).

Gainera, laua betidanik eremu finkatuaren sinboloa izan da, gelditasunari, egonzaletasunari lotua (14). Azkenean, etxea borobil eta laukiaren erdian dago, unibertso osoaren erdian, ahantzi gabe mendiaren erdian ere dagoela (mendi arketipikoak ere, gero ikusiko dugunaren arabera, borobilaren arketipoarekin badu zer ikusi). Horretan dakusakegu etxearen garrantzi izugarria hiru “alor arketipiko”en (15) erranahien gurutzebidean dagoela: mendi, lauki eta borobilaren erdian, gauza guztien bihotzean.

II. ZAZPI OINARRIZKO IRUDI

Badakigu ipuinetako pertsonaiak kondatzea konbeni izaten dela, zenbaki hizkuntzan sartu gabe ainitz puntu izkutuan mantentzen bailitezke (16). Gauza bera erran genezake zenbait arkitekturendako, zenbait graba-

- (13) Ikus G. de CHAMPEAUX eta dom S. STERKX:

“Et voici que le centre du carré coïncide avec le centre du cercle. *Ce point commun* est le grand carrefour de l’imaginaire.” (in *op. cit.* 31 or.)

(14) “(...) *le carré relève de l’orientation fixe ou durable* tandis que le cercle est sans orientation propre. Le carré est une figure anti-dynamique, ancrée sur quatre côtés. Il symbolise l’arrêt ou l’instant prélevé. (...) Depuis les époques voisines de la préhistoire, le 4 fut utilisé pour signifier le solide, le tangible, le sensible.” (ikus G. de Champeaux eta dom Sterkx in *op. cit.* 30/31 or.)

- (15) M. L. von FRANZek definitu du zer den “alor arketipiko” bat hitz hauekin:

“*L’idée d’un arrangement en forme de champs archétypique, c’est à dire de l’inconscient collectif, sur lequel William James avait déjà attiré l’attention, repose sur le fait que les archétypes sont entre eux dans un état de contamination mutuelle et que leurs sens se superposent.* (...) Un aspect particulier de cette figure (la “Grande Mère”) est celui de la “mère dévorante” (...) Un autre aspect est celui de l’Arbre maternel, tel qu’il apparaît dans l’image mythique de l’arbre dont les feuilles servent d’abri aux âmes des enfants non encore nés, de même que les mythes de naissance à partir de l’arbre. (...) L’arbre est en relation étroite avec le symbole du soleil (...) En tant que sarcophage, l’arbre est en outre relié à la mort. (...) La mère dévorante revêt l’aspect du dragon qui est à son tour rattaché à la mort (...). A l’opposé de cet aspect de mort on trouve l’arbre de vie (...).

On pourrait multiplier à volonté de tels exemples d’aspects partiels et de superpositions de sens, auxquels se prêtent les images archétypiques. (...) Chaque archétype est ainsi réellement le centre virtuel d’un domaine de contenus représentationnels en forme de champs susceptible seulement d’être délimité de façon relative, domaine qui recouvre celui d’autres archétypes.” (in *op. cit.* 153/154 or.)

- (16) Ipuinei dagokienez bertze berririk ukateko, ikus, bertze batzuren artean, V. PROPP, B. BETHELHEIM, M. L. von FRANZEN obrak.

tu (bereziki altximikoak direlarik), margo eta soinu konposaketendako, artista horretaz konziente izan dadin ala ez.

Kantu honen lehendabiziko bertsuan atxematen diren irudiak zazpi dira eta zazpi bertsoaren neurtitzak (17). Zazpik leku berezia dauka zenbakien sinbolikan eta hori oroimenean galtzen diren garaietatik hona. Euskal mitologian, adibidez, Mañariako Señorak zazpi urte pasatzen ditu Anboton, “zazpi Oizēn eta zazpi Mugarran” (18). Biblian arras presente dago, bereziki Jainkoa zazpigarren egunean delakotz pausatzen, erran nahi da, betetasuna lortua delarik, ez delarik gehiago deusik eskas. Bertzalde, aipamen ikurkor bezala, on liteke erratea, Txinan, zazpi zenbakiak ikaragarritzko garrantzia daukala udaburua pasatu eta gero sei hilabetez argia behera baldin badoa (neguburua arte), zazpigarrenetik landa handitzen hasten delakotz (19).

Aipatutako zazpi irudiak hauxe ditugu: Goiza, Mendia, Zuhaitza, Etxea, Iturria, Zakurra, Atea. Batzuetan izarretzatzen (20) dira kideko dituzten bertze irudi batzuekin.

- Soako bat eman diezaiegun:

GOIZ (eta bere kideko diren argia eta kolore xuria).

Lehen neurtitzean atxematen dugun irudiari esker, erakusten zaigu mundua garbi-garbia dagoela, ez dela oraino zikinkeriarik hor sartu.

Goiza, ilunpearen bertzaldean den momentua da, indar beltz ezezagun eta lanjerosak urrun direlarik, gauza guztiak ikusten (21) ahal direla-

Euskaraz, ikus bereziki J. Kortazarek kudeatutako talde lanaren azterketak in *Altxorak eta bidaiak-haur kontabideen azterketak*. Eta A. ORTIZ-OSESEK egindako mito zenbaiten (Mari) interpretazioak.

(17) Elizanburuk errespetatzen duen presentaketak erakusten duen bezala, “bortzgarren” neurtitza laugarrenarekin lotzekoa da, neurtitzaren batasuna -ean errimaren inguruan egiten baita.

(18) Ikus J.I. HARTSUAGA in *Euskal mitologia konparatua* 163 or. Ohar gaitezen, halere, aipatzen dudan etsenpluan, zazpi zenbakia hogeitabat zenbakiari lotua zaiola.

(19) Ikus in *Yi King, Fu* (Itzultzea) exagrama eta R. WILHELMek ematen dituen argitasunak:

“(…) au septième mois après le solstice d’été où commence le déclin de l’année, vient le solstice d’hiver; de même le lever du soleil survient à la septième heure double qui suit le coucher. C’est pourquoi le sept est le nombre de la jeune lumière qui naît lorsque le six, nombre de l’obscurité, s’accroît d’une unité. Ainsi le mouvement parvient à l’arrêt.” (24 or.).

(20) G. DURANDEK “constellation” erabiltzen du.

(21) Ikus kantuaren lehen neurtitza: “Ikusten duzu goizean”.

rik. Analista batek erran lezake arrazoinaren eremu (22) soila dela ametitzen, kontzientearena eta horretarako baztertzen direla inkonzientetik jalgi litezkeen itzal (23) beldurgarri guziak... Inpresio hori “argi” sustantiiboak eta eta “xuri” adjetiboak arras ongi azpimarratzen dute.

Zinez, hastapenetik, alderdi bakarreko mundu bat zaigu erakutsia, “Egunekotasunean” (24) bakarrik oinarritzen dena.

Argia hasten delarik mundua egunaren aldera uzkaletzen da eta, Elizanbururen kantuan, arratsa momentu batean aipatzen baldin bada ere (25), ez du aipamen horrek argitasun guttiagoarena ukanen, baizik eta bobobilaren hestearena, zikloaren amaitzearena. Erran daiteke beraz, mundu horretan iduzkirik ez dela sartzen... Inkonzientean dauden indar ezin heziak absolutuki menderatu behar balira bezala, partikulazki itzal sobe-rakinik sar ez dadin (26). Horregatik du autoreak hainbertze aldiz argita-sunaren ideia aipatzen (goiza, argiaren hastapena, etxe aintzinararen eta zakurraren zurtasuna) (26 bis).

(22) Aitaren arketipoak testuan daukan indarrari lotu behar ote zaio hori? (ikus A. ORTIZ-OSSEN *El matriarcalismo vasco*, bereziki “El patriarcalismo” kapitulu-uan 92 e.a.orrialdeetan).

(23) C.G. JUNGentzat, *itzala*, psikearen alor arkaikoena da. Subjektuak espresatzen ez dituen pertsonal edo elgarrekilako elementu psikikoek dute *itzala* egiten. Bizi ez diren elementu horiek subjektuak berak kontziente dauzkanen kontra altxatzen dira.

Informazio gehiagorentzat ikus JUNGen obra.

(24) G. DURANDEK irudi sinbolikoak bi alor handitan banatzen ditu: “Aspect diurne” eta “aspect nocturne”. Hemen “egunerokotasuna”, “aspect diurne” delakoaren zentzuan erabilia da.

(25) Ikus 4.bertsoa:

“Goizean hasiz lanean,
Arratsa heldu denean
Nagusi naiz mahainean;
Giristino bat ona dut hartu
-nik emaztea hartzean;
Ez du mehe egunean
Sartuko uste gabean
Xingar hexur bat heltzean.”

(26) Kasu honetan *animak*, gizakiaren barneko alderdi emeak, sobera indar ukan ez dezan? Gai horri buruz, ikus C.G. JUNGEN obran *anima* eta *animus*; ikus ere A. ORTIZ-OSSEN in *op. cit.*

(26 bis) Harritzekoa da ikustea nola etxea (beraz bere “aitzin xuri”-a) argiaren hastapenari lotua den. Gogo arazten digu, bixtan dena, gure antzinakoek hainbertze errespetatzen zuten etxearen iduzpegitasuna.

Horri dagokionez hor dugu BARANDIARANEK aipatzen duen “la costumbre antigua de orientar las casas de suerte que su entrada principal mire al sol naciente” (in *Mitologia vasca* 57 or.) eta ere M. ETCHEHANDYK hurrengo lerroetan gehitzen duena:

MENDIA

Jadanik ikusia dugunaren arabera, mendia, munduko erdi bat da. Erran genezake ere mendiaren sendotasun ikaragarriak zaintzen duela

“Fait remarquable: depuis que Jacques Blot a fait l’inventaire et l’étude systématique des monuments pré et protohistoriques du Pays Basque Nord, il s’avère que les nombreux dolmens (qui sont des sépultures à inhumations) de ce pays sont orientés: ils présentent généralement leur entrée à l’Est. Cela se passait aux troisième et deuxième millénaires av. J.C. Quand l’ère de la construction des dolmens s’acheva vers le huitième siècle av. J.C., les cromlechs (qui sont des sépultures à incinération) prirent le relais. Or on ne les trouve que sur les crêtes et les cols largement ouverts sur le soleil levant. On sait par les fouilles récentes que l’on construisit des cromlechs au moins jusqu’au onzième siècle ap. J.C., une époque où le christianisme était déjà largement implanté. Celui-ci trouva sur place cette tradition de l’orientation qui lui convenait si bien, et qu’il adopta, de sorte que les tombes chrétiennes de nos cimetières, jusqu’à nos jours, étaient face à l’Est. Depuis quelques décennies, parce qu’on ne comprend plus le sens de cette tradition que, l’on manque de terrain (...), parce que certaines lois, implicites, de l’urbanisme régissent aussi les cimetières (...), parce que l’un des soucis des municipalités est l’occupation maximum de terrain, les cimetières basques sont devenus, pour la plupart, un bric-à-brac de caveaux désorientés tous azimuts au gré des parcelles disponibles.”

Ikus ere G. LAPLACE prehistorizaleak Ursariko ibarrean 1949an aurkitutako hezurren jarreraz dioena:

“Le squelette gisait près de la paroi septentrionale, à l’entrée de la grotte, au fond d’une fosse creusée par l’homme (...). Etendu la tête vers l’ouest, les pieds vers l’est, il était légèrement incliné sur le côté droit. Les mains se rejoignaient à la hauteur du bas-ventre. L’axe du crâne, calé sur le côté gauche par deux petites pierres plates, était vertical. Ainsi la face était-elle orientée dans la direction du rocher de Sainte-Colome, *vers le soleil levant* * dont les rayons pénètrent seulement dans la caverne lors de son surgissement de la ligne de crête orientale. (...). C’est de l’extrême fin du Sauveterrien (...) c’est à dire, selon les datations obtenues par la radiochronologie 14 C à une fourchette de temps comprise entre 7940 BP et 8300 BP.” (“Sépultures et rites funéraires préhistoriques (Ursari)” in *Hil Harriak* 29 or.).

* Nik azpimarratzen dut.

Ikus ere J.M. SATRUSTEGI:

“(El Sol) Es la luminaria que renueva cada día a los ojos del hombre el gran espectáculo del mundo rescatado de las sombras de la noche, y es también el artifice de la luz que ilumina a las almas después de la muerte.

(...) Por la mañana y por la noche se le dirigían plegarias, en términos que reclaman virtud trascendente, y se le aplicaban el tratamiento de Santo. He aquí una oración recogida en Azoleta (Valcarlos), y que un sacerdote la había desautorizado como consejo de viejas, *atso-konttua: O Iruzki Saindia, eman zahuru biziko eta hileko argia!* Santo Sol, danos la luz de vida y de muerte.”

Ez genezake gaia utz G. DURANDEK erranak gogoarazi gabe:

“(...) il semble bien que le soleil signifie d’abord lumière et lumière suprême. Dans la tradition médiévale le Christ est constamment comparé au soleil (...) et selon Eusèbe d’Alexandrie, les chrétiens, jusqu’au Ve siècle, adoraient le soleil

egoitza eta egoitzarekin batera menturaz euskal nortasuna (27). Bertzalde, lehenago azpimarratu izan baldin bada zenbatetarako garrantzia duen mendiaren gailurrak zero eta lurraren arteko harremanetan, orain erran daiteke, mendia bertze perspektiba batetik, goititik beiti (28), begiratzeko baldin badugu, borobilaren forma hartzen duela, etxea gerizatzen duen Mandala (29) batena. Halaber, Guilbeau medikuak, bere 1897.ko

levant. (...) C'est l'ascension lumineuse qui valorise positivement le soleil. *L'Orient* est un terme chargé de significations bienfaisantes dans le langage du joailler qui qualifie de ce nom l'éclat de la perle, comme dans la terminologie chrétienne ou maçonnique. Egyptiens, Perses et Chrétiens se tournent vers l'Orient pour prier parce que, dit saint Augustin, "l'esprit se meut et se tourne vers celui qui est le plus excellent". C'est en Orient que se situe le Paradis terrestre (...) Comme l'écrit M. Davy commentant l'orientation "ad orientem" du temple chrétien, l'Orient désigne l'aurore et possède le sens d'origine, d'éveil, "dans l'ordre mystique Orient signifie illumination".

La tradition des anciens Mexicains recoupe cette tradition méditerranéenne. Le Levant, c'est le pays de la naissance du soleil et de Vénus, le pays de la résurrection et de la jeunesse." (in *Les Structures Anthropologiques de l'Imaginaire* 167/168 or.).

(27) Egoitzak, lur eta herriaren erranahiak errex beregain hartzen ditu, ikus, adibidez, bertze etsenplu ugariaren artean, arras ezaguna den Arestiren "Nere aitaren etxea" in *Harri eta Herri*, B bigarren partean (in Gabriel Arestiren *Literatur Lanak 2*) eta ere, poeta beraren "Desagravio ante las ruinas de Sabinetxe en Albia" (in *op. cit.* 5). Ikus ere, bereziki G. DURAND in *op. cit.*

(28) Zerutik begiratzuz.

(29) Ikus M. ELIADEK ematen duen esplikazioa:

"Les traductions tibétaines le rendent tantôt par "centre", tantôt par "ce qui entoure". En fait un mandala représente toute une série de cercles concentriques ou non, inscrits dans un carré. (...) L'initiation du néophyte dans un mandala peut-être homologué à l'initiation par pénétration dans un labyrinthe." (in *Imagines et Symboles* 66 or.).

ELIADEFEN ustez mandalak hiru ofizio dauzka:

1. Erritual inizatiko baten pare izatea.
2. Neofitoa, kanpoko edozein lanjerretaz gerizatzea.
3. Batek bere buruaren laguntzea.

Osagai bezala, ikus M. ETCHEHANDYK dioena:

"Le cercle- qui est inséparable de son centre-semble bien être une figure archétypale que l'homme porte inscrite en son inconscient. La fascination qu'il exerce reste vive chez les Basques. Les cromlechs peuplent leurs montagnes. De très nombreuses danses sont toujours exécutées en rond. Le mode d'occupation du sol communautaire, en des temps reculés, atteste le même schéma mental: le berger recevait la jouissance de deux parcelles, l'une en haute montagne pour la saison d'été, l'autre en piémont pour l'hiver. Or ces deux parcelles étaient circulaires. Au centre du cercle se trouvait une pierre sur laquelle était gravé un carré dans lequel figuraient les diagonales et les médianes (croix) indiquant les huit directions de l'espace. Aux huit points où ces lignes, imaginaires prolongées, touchaient le cercle, on dressait une pierre, délimitant ainsi le *Saroi* ou aire

Sarako mintzaldian, testu honi ematen dion “Mendiko etxe ttipia” titulu-luan (30), sumatzen da zenbatetaraino oinarritzkoa den, preseski, ulertzea non kokatua den etxe hori.

Xehetasun orokor hauekin bukatzeko, on liteke ttiki adjetiboari gehitua zaion -tto atzikia bi hitzez aipatzea. Poetak agertzen du hor, dudarik gabe, mundu horrendako senditzen duen atxikimendua; hori, azpimarratzeko ez litekeela, beraz, ttipitasuna “à la lettre” hartu behar, erran nahi da izari bezala, non eta ez den izari hori intimitatearen (Lafittek “mami-tasun” erabil lezake) baloreek kantuan daukaten garrantzitasunaren mirail.

Guilbeauk erabiltzen duen tituluak ongi salatzen du mendi arketipikoa zaigula hor agertzen, gizakiaren inkonzienteko oinarritzko egitura bezala. Horrek aski argiki dager, adibidez, ttipitasuna ez dela hain ttipia...

Gisa guziz, Mendiak daukan izigarriko inportantzia (alegiatzko “ttipitasun” guztietatik at), kantuaren irakurketak berak erakusten digu aski argiki.

ETXEA (eta Gaztelua)

Hau dugu gure testuaren oinarritzko itxura, jatorritzko Elizanburu-ren tituluetarik batek (*Nere etxea*) eta Guilbeauk erabilikoek ezin hobeki erakusten duten bezala. Pasan, erran dezagun hemen ere erakaspengarri dela ikustea elkarrekilako inkonzienteak ez duela bi letratuek tituluetan ezarri dituzten osagai semantikoen beharrik: aski ongi agertzen baita gainerako guztiak mugitzen dituen irudia Etxea dela. Puntu horrek esplikaz lezake zerendako gu denentzat, *Nere etxea* kantua, den *Ikusten duzu goizean*, eta kitto...

de pacage. Ces mêmes bergers pyrénéens pratiquaient jusqu'à une date récente un jeu (*Urdanka*) dont l'aire circulaire comportait un trou central où logeait une balle sphérique. (...) Il n'est pas jusqu'à la langue basque qui ne témoigne de l'importance du centre et du cercle. Par exemple, arriver à ses fins se dit *erdietsi* (erdi = centre =; etsi = fermer); esi = clôture). (...) Il serait étonnant que la stèle discoïdale ne manifeste pas un aspect du même univers mental. L'église adopta ce monument, souvent sans y ajouter le moindre signe chrétien, qu'elle a pu penser superflu.” (“Renouveau du cimetière basque” in *Zodiaque cahiers*, Juillet 1989).

Ikus ere C.G. JUNG:

“L'expérience enseigne que le “cercle magique”, le mandala, est l'antidote utilisé de toute antiquité dans tous les états d'esprit chaotiques.” (in *Les racines de la conscience*, 21/22 or.).

Xehetasun gehiagorendako ikus ere G. DURAND in *op. cit.* 281/282 or.

(30) Ikus “Eskualdun herritar maiteak” (in J. VINSON *op. cit.* 198/199 or.).

“Herria”-k, jabetzen delarik testu letratu batetaz, bere “arrazoinak” baititu eta bere legeak aplikatzen baititu. Hitz batez: kantu xahar izengabe ainitzetan gertatzen dena gertatuko zaio gure testu izenpetuari: lehen-dabiziko neurritza da titulutzat erabilia izanen dena. Naturalki, ximpleki...

Bertzalde, hemen ere mendiarekin gertatu zitzaigunarekin topo egiten dugu, etxearen ttipitasunarekin. Baina, kontutan hartuz poetak bere egoitzarendako duen atxikimendu izigarria, ez dugu apentziarik ere Elizanburu “sinetsiko”, nahiz etxea “ttikitto”-a dela dioen. Non ttipitasuna ez den, hemen ere, sabeleko munduak (etxe ttipitoaren barrenean borobilkatzeak) (31) sortarazten dituen intimitatearen baloreen jaun eta jabe-tzaren ageria.

Zeren poetaren mundu sentimentalean etxe ttipi hori alimalekoa da, eta hori, herriko kantariak badaki, sinboloak bizi dituen neurrian bederen. Eta sinboloak bizi dituenak badaki ere bakarrik oinarrizko itxura bat dela bi aldiz agertzen “Imaginarioaren gurutzebide handi”-an: behin, mendi kaskoan (borobil sinboliko baten erdian) eta bi, lau haitzen erdian...

Horretara joanez, bigarren bertsoan dugun Gaztelua kontutan hartzekoa da. Hemen, Gaztelua zerbaiten kontra, zerbait defenditzeko, erakitzen den arkitektura bat dat. Eta kasu honetan ere, nik Elizanbururen errana (32) iferzinaz, alderantziz, antiesaldi bezala, har nezake: ez da hor dudarik Etxea, neurri batean Gaztelu dela (33)...

(31) Ikus G. DURANDEK, G. BACHELARD (in *La terre et les rêveries du repos*) aipatuz, dioena:

“(…) nous avons besoin d’une petite maison dans la grande “pour que nous retrouvions les sécurités premières de la vie sans problèmes”.” (in *op. cit.* 278 or.).

(32) “Nahiz ez den gaztelua”.

(33) Ikus G. BACHELARD:

“Il faudrait de longues pages pour exposer, dans tous ses caractères et avec tous ses arrières-plans la conscience d’être abrité. (...) Contre le froid, contre le chaud, contre la tempête, contre la pluie, la maison nous est un évident abri (...). En coordonnant toutes ces impressions et en classant toutes ces valeurs de protection, on se rendrait compte que la maison est pour ainsi dire un contre-univers ou un univers du contre.” (in *La terre et les rêveries du repos*, 112 or.).

Eta G. DURAND:

“(…) la maison qui abrite est toujours un abri qui défend et protège et (...) l’on passe continuellement de sa passivité à son activité défensive.” (in *op. cit.* 190 or.).

Eta J. CHEVALIER eta A. CHEERBRANTEK gazteluaz diotena:

“(Le château) donne une impression de sécurité comme la maison en général, mais une sécurité affectée d’un quotient élevé.” (ikus “château” in *op. cit.*, 340 or.).

ZUHAITZA

Norbaitek zioen bezala, liburu lodi bat baino gehiago egin litezke gizakiaren baitan zuhaitzaren arketipoak duen garrantzitasuna aztertuz eta kontutan hartuz nola, zenbat aurpegi ezberdinekin, agertzen zaigun edergintza eta kultur ezberdinetan zehar.

Arras ezaguna da gure kulturen irudi honek (eta etxearenak) duen toki berezia (34). Zuhaitza, hemen haritza da, gure ingurumenean ezagutzen dugun arbola iraunkor eta sendoena. Erran daiteke, Zuhaitza, Mendia bezala, etxearen gerizaile dela.

Baina, jatorrizko handi (“lau haitz handi (...)”) adjektiboa galtzearekin gertatu den lerratze semantikoa kontutan hartuz, iduri luke zuhaitzaren irudia gero ahuldu (35) zaigula lautasunaren eraginez (“Lau haitzondo (...)”). Bertzaldetik, haitzondoa delarik agerian ezartzen, ez ote da hobekiago erakusten, preseski, lur gainean ongi finkatua dagoela (36), lurrean erroak ongi sartuak dauzkala, beraz, lautasunaren erranahiarekin ezkontzen dela?

ITURRIA

Kantuak dio etxeak “iturritto” bat (badaukala) (37) “aldean”. Ura, biziaren iturri bezala zaigu agertzen hemen, ur lasterra baitelakotz iturria (38). Modu horretan, lurra emankorra bilaka daiteke, fruituak eta loreak ematen ahalko ditu, gizona hasetzen ahalko du.

(34) Ikus J.M. BARANDIARANEN obra.

(35) G. DURANDEK “image dégradée” erabiltzen duen zentzu berean:

“(…) il est capital de remarquer que dans le langage, si le choix du signe est insignifiant parce que ce dernier est arbitraire, il n'en va jamais de même dans le domaine de l'imagination où l'image-aussi dégradée qu'on puisse la concevoir est en elle-même porteuse d'un sens qui n'a pas à être recherché en dehors de la signification imaginaire.” (in *op. cit.*, 24 or.).

(36) Ikus P. LHANDE: ondo = “pied d'arbre”. (in *Dictionnaire-basque-français*).

(37) GUILBEAUK, *iturritto*, “petite fontaine”, itzultzen du (ikus 11.nota) IKAS elkarteak argitaratuko bertsioan, berriz, “petite source” itzulpena atxematen dugu (ikus in *Elizanburu, Ikusten duzu goizean eta bertze...*).

(38) Ikus P. LAFITTE: “eau courante”: ur laster, ur bizi, ur goai; “eau dormante”: ur hil, osin.

Ohartzekoak dira ur geldia erentzat LAFITTEK ematen dituen itzulpenak eta hauek dakartzaten irudiak.

Gogora arazten dute, G. BACHELARDEK E. POEREN obran atxematen duen ur *beltzaz* ixkiriatu zuena:

Lurra baratze bilakatzen da, ez baita baratzerik urik gabe. Azkenik, oartzekoa da zenbatetaraino iturria etxeari lotua den, etxearen barnetik beretik jalgi baladi bezala... (39).

XAKURRA

Xakurraren irudiak hainbat aurpegi har litzake eta bereziki zakur beldurgarriarena, Infernuetako Zaindariarena. Hemen, zakurra, xakur bilakatu zaigu eta gainera kolore xurikoa, erran nahi da, itzal guztietatik hustua. Ez dauka batere alderdi izigarririk, nahiz ate baten aintzinean dagoen, (40) mito, ipuin eta margo askotan ikus daitekeen bezala, etxeko xakur *hezia* baizik ez baitugu.

Zakurraren kolore xuria, egunaren haste eta etxe aintzinaren xuritasunarekin bat doa, jadanik aski azpimarratu izan dugunaren arabera, *ez baitugu hemen kolore beltzarendako* tokirik.

“Alors toute eau primitivement claire est pour Edgar Poe une eau qui doit s’assombrir, une eau qui va absorber la noire souffrance. Toute eau vive est une eau dont le destin est de s’alévir, de s’alourdir. Toute eau vivante est une eau qui est sur le point de mourir.” (in *L'eau et les rêves* 65/66 or.).

Ikus J.M. BARANDIARANEK dioena:

“Las aguas del mar, las de varios pozos y remansos de ríos, son tenidas como mansiones de determinados genios (lamias) y como lugares en cuyo fondo están hundidos antiguas casas y poblados mágicos”. (in *Diccionario ilustrado de mitología vasca* 239 or.).

Eta ere J.M. SATRUSTEGIK in *Mitos y creencias* 35.orrialdetik 50.era.

Ikus ere G. DURAND:

“Ce complexe s’est-il formé au contact de la technique de l’embarcation mortuaire, ou bien la peur de l’eau a-t-elle une origine archéologique bien déterminée, venant du temps où nos primitifs ancêtres associaient les bourbiers des marécages à l’ombre funeste des forêts?” (in *op. cit.* 103 or.).

(39) Etxea bera bizi iturri balitz bezala.

(40) Bixtan da gure kasuan, xakurra etxeko zaindaria dela, hori erran, eta horretan geldi gintezke... Bainan irudiak simbolikoak direlarik (ikus bereziki C.G. JUNGEK sinboloaz ematen duen definizioa in *Essai de l’exploration de l’inconscient* 29/30/31 or.), eta kasu honetan bezala, mitologema bezala direlarik ipuin eta kontakizun frangotan, beharrezkoa da haien aipatzea, nahiz eta, hemen gertatzen zaigun bezala, arras histuak, erran nahi da abantxu mututuak diren. Jadanik aztertu ditugun irudien ondotik, argi da xakurra ere kutsatua dela eta ez dela *edozein lekutan* eta ez duela *edozein kolore...* etxea arbolon “arteana” ez den bezala...

Etxean sartzearekin sinbolikoki bertze eremu batean sartzen gara (nahiz eta gure kantuan etxearen eremuaren parte den ere inguruko lurralde guzia) eta abere baten presentziak erakus lezake zenbatetaraino leku hori berezia den, leoinak, zenbait tokitan betetzen duen tokia betez (alderdi ikaragarrikerik gabe bixtan dena, irudia histua denez) “keinu abisatzaile” izanez:

Beraz, nahiz eta argiki zakur honek atariko zaindariaren lekua okupatzen duen, irudi histu eta indar gabetu bat baizik ez da. Ez baitugu hemen bidaia inizatiko batek, adibidez, argitik ilunpetara eta vice versa (41), eskatzen duen egiturarik atxematzen. Hemen, bidea dena egunaz (42) egiten da, beraz zakurrak ez dezake monstu, herensugearen itxura beldurgaririk har. Hemen agertzen den mundu “bukolikoa” sobera geldia baita menturaz, xakurra sobera *egunerokoa*...

“Le monstre avertisseur est souvent un *lion*. Il est en de nombreux cas un véritable symbole du *sacré en soi* (...). Aussi le trouve-t-on souvent posté à l'entrée du lieu sacré: palais, temple, paradis, source, etc., moins pour en interdire l'accès que pour empêcher le profane de s'y aventurer inconsciemment et de s'attirer les foudres divines; il est alors, avant tout *signe* avertisseur, indicateur de rupture entre deux domaines hétérogènes, le profane et le sacré. L'iconographie des civilisations les plus diverses figurera, par exemple autour de l'arbre sacré, aussi bien des lions (...) que des génies, des griffons, etc., également aptes à jouer ce signe avertisseur.” (G. de CHAMPEAUX et dom S. STERKX in *op. cit.*)

Euskal mitologian nahiz xakurra guttitan agertzen den, J.M. BARANDIARANEK ematen duen etsenplu batean bederen ikusten da nola haren presentziak bertze eremu horren muga finkatzen duen:

“Es en la caverna de *Olanol* donde, según cierto relato de Beizama, tiene su morada un genio en figura de perro que hace de guardián del antro.” (in *Diccionario de mitología vasca* 245 or.).

Literaturan zehar irudi eta mitoek bizi duten abenturari dagokionez hona J. BIESEN pentsamendua:

“Si la littérature moderne se présente à nos yeux comme une énorme masse de langage désacralisé, un continent d'idées et de sentiments issus d'une mentalité policée, humaniste, moraliste et rationaliste, il n'en est pas moins vrai qu'au sein de cette masse, des éléments épars constituent de véritables réminiscences chamaniques, remontant à travers des couches d'oubli et perçant les strates de conditionnement multiples. Pierres précieuses sur la montagne, un vers isolé, une image, un rapport de termes, un objet évocateur encore saturé de magie, un fragment de mythe seront autant de relais entre la préhistoire et l'âge contemporain, autant de points de repère entre nous et nous.

Mais n'est-ce pas le propre de créateur de jouer ce rôle médiumnique dans l'éternelle ambigüité littéraire, et d'être le modeste véhicule d'une pensée qui le déborde de toutes parts? (“Chamanisme et Littérature” in *Mircea ELIADE*, Cahiers de l'Herne, 251 or.).

(41) Bidaia inizatikoak, normalean, exigitzen du “infernu”etatik jalgi eta geroko itxuraldatzea (metamorfosia), berpiztearen bidez, nahiz eta, garai modernoko kontakizun frangoetan bidai hori ez den bukatzen (ikus S. VIERNEEN ikerketak). Euskal literaturan atxeman daitezkeen egitura inizatikoetat, ikus J. KORTAZAREN ikerketa “Barrutiaren Gabonetako Ikuskizuna” (in *Altxorrek eta bidaiak, haur kontabideen azterketak*) eta G. ARESTIREN *Maldan beheraz* egin dudan tesia: *Imaginaire et poésie dans Maldan behera de Gabriel Aresti*, ikus ere gai horretaz idatzi dudan artikulua “Maldan beheraren irakurketa baten inguruan” (in *Hegats* 4, XX.mendeko literatura).

(42) Ikus 25.notaren oharpena.

ATEA

Atearen irudiak unibertsalki izigarriko lekua dauka bereziki inimizio-needan. Ebanjelioan, Kristo bera Atea da. Hein batetik beste batetara pasatzeko den hausturaz nagusitzeko, atea behar da pasatu eta etxe-sartzea defenditzen dagoen atariko zaindaria hil edo belaunika arazi.

Hemen, nahiz zakurrarekin gertatzen den bezala, irudi histu bat dugun, argi da atearen presentziak, etxearen inportantzia, egoitza sakratuaren inportantzia, berrazpimarratzen duela; zakurra eta atea etxe-tenploaren osogai baitira.

III. PARADISUAREN ITXURA

1. Mikrokosmo bat (43)

Kantuaren lehen bertsoan diren itxurei soako bat ematerakoan, kontura gaitzke mikrokosmo baten eraikuntzarekin Paradisuaren itxura zai-gula hor emana.

Mikrokosmo horren elementuak berri ditzagun: hastapenean badugu eremu berezi bat, mendi kosmiko batek mugatua, zero eta lurra elgarretaratzen diren erdian (etxean) “erditua” eta, denborari dagokionez, egun haste betierekoan (44), sekulan itzalik ezagutu ez duen, xuritasun, argitasun eta berritasun absolutuan oinarritaua (45).

Orain, bigarren urrats batean, nahi badugu hurbilagotik begiztatu eremu hori, ikusten dugu etxearen inguruan lau zuhaitz daudela eta iturri bat. Bertze modu batean, erran genezake, Genesian, Eden en landatua den baratzearekin baduela zer ikustekorik horrelako itxura batek (46).

Eden en ere lautasuna agertzen zaigu, Pishôn, Gihôn, Tigre eta Eufra-tes ibaiekin (47). Gure testuan, lau haritzek dute materializatzen mundu

(43) Ikus J. BIES:

“Familiar du “paradis des archétypes”, le poète en créant lui-même un cosmos en miniature (son poème) imite le geste archétypal du Démonstrateur, accompli in illo tempore.” (in *op. cit.* 263 or.).

(44) Eden en den baratzea *Eki aldean* dago, iduzpegian, *argia hasten den* lekuan... (Ikus *Bible de Jerusalem*, “Genèse II 8”).

(45) Interesante da gogoratzea egun hastea, egunsentia, latinez *albus* (= xuri) dela...

(46) Ikus *Bible de Jerusalem* in “Genèse II 8”).

(47) Ikus “Genèse II 10, 13, 14” in *op. cit.*

horren harmoniaz beteko oreka (48) eta iturri (ur arketipikoaren seinale) bat aski da paradisuaren irudi sinbolikoa, berriz nonbait pitz arazteko (49).

Baina, ez da Paradisuaren erranahia itxura horietan bakarrik mugatuko, kanpoko mundu baten presentzia sumatzen baita eremu horren inguru urrun/hurbilean. Hori ikusiko dugu bereziki, gero eta gehiago barneratuko garelarik Paradisuko Patriarka (50) (= "Laborari")-aren bizian (51).

Erran daiteke, bigarren bertsoan agertuko diren ideiak (etxe/gazteluaren pareta lodiek kanpoko lanjerretaz gerizatzen dute) gero, modu batean edo bertzean, errepikatu direla, gai errekorrente bezala kantu osoan.

2. Galtzea

Hastapenetik, irudi guztiak sobera alderdikorrak izanez, hemen nonbait paradisu lurtar honen inguruan dagoen bertze munduaren aipamena egina izanen zaigu hain adierazgarri diren bi neurtitz hauen bidez:

"Etxetik kanpo zait iduritzen
nonbait naizela galdua,"

Ohar gaitezen lehenik, mintzo dena ez dela gehiago, Gu, entzule/irakurleaz gogoratzen (52) eta lehen bertsoaren azken neurtitzetik aintzina, Niren ikuspegia, bakarrik Niaren inguruan erditua zaigula, erran nahi da, Laborariaren, Aitaren, Patriarkaren, Nian.

Bi bertso horiek erakustera ematen dute Paradisuaren aipatzearekin, galtzearen beldurra agertzen dela, lur, Amalurraren (53) galtzeko beldur izugarria.

(48) Genesian berriz, *lau* ibaiek.

(49) Hemen ura ere "xuria" daiteke. Ikus ere 30. nota eta ikus ere G. DURANDEK dioena:

"(l)'eau lustrale a d'emblée une valeur morale: elle n'agit pas par lavage quantitatif mais devient la substance même de la pureté, quelques gouttes d'eau suffisent à purifier un monde (...)" (in *op. cit.* 194 or.).

Ur arketipalaren balio ezberdinendako, ikus C.G. JUNG, G. BACHELARD, G. DURAND, ORTIZ-OSÉS.

(50) Hemen laboraria. Ez ahanztu, ELIZANBURUK *Nere etxea* tituluaren ondoa *Laboraria* ezarri zuela bigarren titulu bezala.

(51) Ikus bereziki 3.bertsotik bukaera arte, erran nahi da 10.-a arte.

(52) "Ikusten duzu goizean".

(53) K. MITXELENAK, nik uste *Amalur* filmeaz zioena, burura heldu zait:

"Se supone (...) que es conocido de todos que los nombres vascos no tienen género, aunque los entes designados por ellos puedan tener sexo. Por eso, estoy

seguro, porque le he visto reaccionar en circunstancias muy semejantes (su réplica fue: *¿Por qué Euskadi Roja? ¿Por qué no Euskadi Rojo?*) de que nuestro malogrado Aresti, al ser el título *Amalur*, habría preguntado sin tardar: “*Amalur*, por qué no *Aitalur?*”. Porque la tierra *lur*, va precedida ahí de *ama* “madre”, por la simple razón de que el latín *terra* y sus continuadores, a empezar por *tierra*, son de género femenino, al igual que el alemán *Erde*, el ruso *zemlja* y así sucesivamente.” (in *Lengua e historia* 94/95 or.).

Ez zait iduritzen arrazoia hori denik bakarrik, mitoazterketak erakusten duen bezala. Unibertsalki lurra emetasunari lotua baita. Lurra lantzen duen nekazariak egiten dituen jestuak maitasun jestuen idurikoak dira ere, X. LETEREN poema honetan ikusten den bezala:

“Goldea da beharrezko
esku sendo zuhurrak
daraman goldea,
gizon langilearen arnasa bizikorra,
gariaren berotasun oriztatua.

Hazia da beharrezko.
Nekazari zailduak zabaltzen duen
euri oparoa,
desioaren sabaletik maitasun orruz
aragi biguina ematen den
ziztada zuria./(...)”.

(in *Bigarren poema liburua* 69 or.)

Alderdi berari dagokionez, ikus, bertze ainitz etsenpluen artean, M. TOURNIEREN *Vendredi ou les limbes du Pacifique*-tik hartutako lerro hauek:

“Le présence presque charnelle de l’île contre lui le réchauffait, l’émouvait. Elle était nue, cette terre qui l’enveloppait. Il se mit nu lui-même. Les bras en croix, le ventre en émoi, il embrassait de toutes ses forces ce grand corps tellurique, brûlé toute la journée par le soleil et qui libérait une sueur musquée dans l’air plus frais du soir. Son visage fermé fouillait l’herbe jusqu’aux racines, et il souffla de la bouche une haleine chaude en plein humus. Et la terre répondit, elle lui renvoya au visage une bouffée surchargée d’odeurs qui mariait l’âme des plantes trépassées et le remugle poisseux des semences, des bourgeons en gestation. Comme la vie et la mort étaient étroitement mêlées, sagement confondues à ce niveau élémentaire! Son sexe creusa le sol comme un soc et s’y épancha dans une immense pitié pour toutes choses créées. (...) Ci-gît maintenant, assommé, celui qui épousa la terre (...)” (126 or.).

Eta lurak ematen du fruitua, amak haurra mundura sortarazten duen gisan. Gehienez sinbolo eta mito kontuak unkitzen direlarik gizakiak biziarekin, naturarekin, *esku hutsa* egiten dituen esperientziek argitasun gehiago ekartzen dituzte, intelektual espekulazioek baino... Horregatik, seguraski, horrelako kritika hipotetiko bat gogoan duela, idatzki berean, K. MITXELENAK hauxe gehitzen du:

“Fuera del género, podría decirsenos, hay creencias basadas en mitos, tradiciones, etc., que justificarían una asignación de sexo, en principio arbitraria. Tal ocurre, en efecto, con el sol que podría ser Catalina entre nosotros antes que Lorenzo, ya que una invocación en verso lo llama *eguzki amandrea*”. (in *op. cit.* 94/95).

Bainan erran ote daiteke generoen erabilpena “arbitrarioa” denik? Psikonalisiak, antropologiak, mitokritikak, erakutsi digute preseski mundu lerrakor horretan kontuz ibiltzen.

Ikus A. ORTIZ-OSESEN obra eta bereziki *El matriarcalismo vasco*.

Ikus ere G. DURANDEK, frantses hizkuntza etsenplutzat hartuz, puntu horretaz dioena:

“Toute la répartition sexuiseblancielle est dirigée par la conception active du masculin et passive du féminin. En français tout ce qui est différencié, déssexualisé, tous les pullisemblants, tout ce à quoi se prête une âme active, tout ce qui est figé dans une délimitation précise, méthodique et en quelque sorte matérielle, est masculin. Au contraire, tout ce qui représente une substance immatérielle, abstraite, tout ce qui subit une activité exogène, tout ce qui évoque une cette nuance linguistiquement bien spécifiée vient jouer sur le fond universel des représentations les plus élémentaires de la féminité et de la masculinité. Derrière la dérivation sociale de la langue persistent donc dans leur universalité les archétypes et les symboles les plus généraux sur lesquels viennent broder les incidentes sociologiques. (...) Le “trajet anthropologique” du sujet humain à son environnement fonde une généralité compréhensive que nulle explication, même historique, ne peut totalement monnayer.” (in *op. cit.* 453/454 or.).

Gainekoen erranen apainketa bezala, ikus T. PEILLENK dioena:

“Dans (la cosmogonie basque) l’origine des êtres humains vivants est la terre (en basque “lur”, “lohi”), le même terme désignant la boue et le corps en basque ancien.” (“Civilisation et idéologie vasconienne”).

T. PEILLENK hemen A. OIHENARTEK aipatzen duen *lohi* sustantiboaren erranahia dauka gogoan. OIHENARTEK dioenez, xuberotarrez, *lohik* “corps” erran nahi baitu eta oraino argiago *lohadarek* “membres”... (in *Les proverbes basques recueillis par le Sr. D’Oihenart, plus les poésies basques du même auteur* 73 or.).

A. ORTIZ-OSESEK:

“La primera relación del hombre, como su nombre indica, lo es con su humus: después emerge el cielo y lo que simboliza (originariamente complementario).” (in *El matriarcalismo vasco* 117. or.).

Eta ere M. ELIADEK ekartzen digun lekukotasuna:

“Un prophète indien, Smohalla, de la tribu Umatilla, refusait de travailler la terre. “C’est un péché, disait-il, de blesser ou de couper, de déchirer ou de griffer notre mère commune par des travaux agricoles. “Et il ajoutait: “Vous me demandez de labourer le sol? Irai-je prendre un couteau pour le plonger dans le sein de ma mère? Mais, alors, lorsque je serai mort, elle ne me reprendra plus dans son sein. Vous me demandez de bêcher et d’enlever des pierres? Irai-je mutiler ses chairs afin d’arriver à ses os? Mais, alors, je ne pourrai plus entrer dans son corps pour naître de nouveau. (...)”

Ces paroles ont été prononcées il y a à peine un demi-siècle. Mais elles nous arrivent de très loin. L’émotion que l’on ressent à les entendre tient surtout à ce qu’elles nous révèlent, avec une fraîcheur et une spontanéité incomparables, l’image primordiale de la Terre-Mère. Cette image, on la rencontre partout dans le monde, sous des formes et des variantes d’ailleurs innombrables.” (in *Mythes, rêves et mystères* 193 or.).

“Que les humains soient enfantés par la Terre, c’est là une croyance universellement répandue; (...) Dans nombre de langues, l’homme est nommé: “né de la terre” (chansons russes, mythes des Lapons et des Estoniens, etc. (...))” (in *op. cit.* 202 or.).

Mintzo dena, etxetik kanpo (etxe//lur), Amaren sabeletik kanpo bezala senditzen baita. Amaren arketipoaren (54) sartze hori sorlekua eta sortua (55) hitzek markatzen dute ere.

Sortzeak berriz, zilegi den bezala, heriotzearen ideia eskatzen badu (“Han utziko dut mundua”), ez da hau batere heriotze beltz, beldurgarri eta tragikoa izanen, ohitura (56) eta gauzen egonzaletasunaren altzoan kokatzen baita, pertsona bakar baten bizia arbasoenari (57) estekatuz,

(54) Ikus C.G. JUNG.

(55) G. BACHELARD entzun dezagun:

“Que valent-elles les maisons de la rue, quand on évoque la maison natale, la maison d’intimité absolue, la maison où l’on a appris le sens de l’intimité?” (in *La terre et les rêveries du repos* 95 or.).

“Si la maison natale met en nous de telles fondations, c’est qu’elle répond à des inspirations inconscientes plus profondes (plus intimes) que le simple souci de protection, que la première chaleur gardée, que la première lumière protégée. La maison du souvenir, la maison natale est construite sur la crypte de la maison onirique. Dans la crypte est la racine, l’attachement, la profondeur, la plongée des rêves.” (in *op. cit.* 98 or.).

“Le retour au pays natal, la rentrée dans la maison natale, avec tout l’onirisme qui le dynamise a été caractérisé par la psychanalyse classique comme un retour à la mère. (in *op. cit.* 121 or.).

Ikus ere M. ELIADE:

“La mère ne faisait que parfaire l’oeuvre de la Terre-Mère. Et, à la mort, le grand désir était de retrouver la Terre-Mère, d’y être enterré dans le sol natal-ce “sol natal” dont on devine maintenant la profonde signification. D’où la peur d’avoir ses cendres enterrées ailleurs; d’où, surtout, la joie de les réintégrer à la “patrie”, joie que trahissent souvent les inscriptions sépulcrales romaines: *hic natus hic situs est* (...) “ici il est né, ici il a été déposé”; *hic situs est patriae* (...); *hic quo natus fuerat optans erat illo reverti* (...): Là où il est né, il a désiré revenir”. L’autochtonie parfaite comprend un cycle complet, de la naissance à la mort.” (in *op. cit.* 204/205 or.).

(56) Ikus A. ORTIZ-OSASEK dioena:

“(La) *Gran Madre Vasca* (...) *no sólo es señora de la vida, sino de la muerte. Mas la ambigüedad de la vida corroída por la muerte que la anida se consume en la propia ambivalencia de la muerte: pues ésta puede significar muerte muerta, muerte sin vida, muerte sin amor y, por tanto, sin paz consigo mismo y el mundo. Mas puede significar también, y de hecho también lo significa, muerte como descanso, paz y transvida. Entonces se comprende perfectamente el por qué puedan asociarse positivamente el arquetipo de la Gran Madre y el “tipo” de la muerte; (...) Acaso así pueda entenderse el profundo vitalismo vasco en medio de una ancestral tradición de culto a los muertos;*” (in *op. cit.* 83 or.).

(57) Ikus nola J.B. ELIZANBURUREN “Eskuara eta Eskualdunak”, Kantu, kanta, kantore liburuan, “Arbasoak” tituluarekin agertzen den (ikus *op. cit.* 10 or.); eta ikus partikulazki bertso hau:

“Mendi gainetik hasten banaiz kanta hunen kantatzen, Oihan zokotik, oihartzuna, zer dautak ihardesten? Hobietarik aitasoak ote dire mintzatzen? Zer haiteke, hi oihartzun, heien oihua baizen?”.

(in *Ikusten duzu goizean eta bertze...* 43 or.).

pertsonaren destinoa kolektibitatearekin nahasten baita, hemen euskaldunarekin.

Mendiak, zuhaitzek, zakurrak, etxe/gazteluak zaintzen duten eremutik kanpo, arbasoen leinua puskatzen da, osoki lurrari, sorlekuari lotua baita eta hor agertzen da galtzearen zentzu erranahikorra. Borobil gerizaltetik kanpo, Mandalaren egituratik kanpo, lanjerra baizik ez dago (58); gorputz galtzetik (“nonbait naizela galdua”), agudo pasatzen baigara zentzuaren galtzera (“Galtzen ez badut zentzua”) (59).

“Segiluz ene bidea,
(Ene semeak) ez du *galduko* etxea.”

Galtzea, zerbaiten faltatzea baita eta zerbaiten falta, zerbaiten hutsa senditzea. Aditz horren osagai izanen dira “hiltze” (“ez gaitu hilen goseak”), “gose” eta “behar” (“jende beharrek ez dute jotzen / gure etxeko atean”) (60) /// “ez du beharrak sekulan jotzen/gure etxeko atean” (61)).

(58) Ikus M. ELIADE:

“D'une part il y a un espace cosmisé, puisque habité et organisé, d'autre part, à l'extérieur de cet espace familier, il y a la région inconnue et redoutable des démons, des larves, des morts, des étrangers; en un mot, le chaos, la mort, la nuit.” (in *Mythes, rêves et mystères* 66 or.).

Ikus ere G. de CHAMPEAUX eta dom S. STERKX:

“(Pour les primitifs *) la région environnante constitue la totalité du monde organisé et habitable; c'est un ensemble clos, complet en soi, un microcosme suffisant. Au delà de ses frontières commence le domaine du chaos, des ténèbres, des esprits démoniaques, des forces de destruction, de la nuit cosmique et de la mort. (...) le véritable microcosme vécu, c'est l'environnement restreint dans lequel se meut l'homme; c'est finalement l'homme individuel lui-même.” (in *op. cit.* 166/167 or.).

* M. ELIADEK, “gizon arkaikoa” erraten du (ikus *Mythes, rêves et mystères* 66 or.); C.G. JUNGEK, berriz, xehetasun hau dakar terminologiari dagokionez:

“Nous utilisons-soulignons-le-l'idée de “primitif” au sens d’“originel” sans faire allusion au moindre jugement de valeur” (ikus *L'homme à la découverte de son âme* 192 or.).

(59) Ikus C.G. JUNGEN obran *animaren alderdi lanjerosak*. Ikus ere A. ORTIZ-OSESEK dioena:

“(…) la autoconciencia masculina sólo se obtiene en-relación al inconsciente (femenino), en cuyo contacto se incubaba aquélla. (...) la Madre commo “Mana” puede o bien *conducir* a la reconciliación consigo mismo o reconciliación de los contrarios, o bien *se-ducir* a la castración, o bien intimidar y anegar el espíritu.” (in *op. cit.* 91 or.).

(60) J.B. ELIZANBURU in *Ikusten duzu goizean eta bertze...* 7. bertsua 24 or.

(61) In *Kantu, kanta, kantore*, 9. bertsua, 20 or.

3. **Betetzea**

Galtzea baldin bada lanjerrik handiena, etxearen galtzea, seguritatearen galtzea, erran nahi da borobilaren aterbe gerizaletik, ingurubil, espiral mugimendutsuan (62) eta kanbiakor batean sartzea, hori horrela baldin bada, kasatu beharko da sinbolikoki lanjer hori, hiltzeko lanjer hori, betetasuna gorapatuz, bereziki ontasunetan, familian.

a) *Ontasunetan*: gosearen izeza urrunduz. Paradisuan ez da hutsaren konzepturik sartzen (63), beraz, oinarrizkoa da etxalde oparo baten deskribatzea, izaten ahal diren abere, kabal, ederrenekin:

“Landako hiru behiak
Esnez hanpatu ditiak
Aratze eta ergiak;
Bi idi handi kopeta zuri.
-bizkar beltz, adar handiak, (...)”.

bi urterendako bederen beteak diren ganarreekin:

“Jazko bihiaz ditut oraino
zoko guziak beteak.”

Hori dena, geroaren ezezaguntasuna (heriotzearen izeza) ahal bezainbat baztertuz (64).

(62) Nahiz ahaidetasun handia daukaten borobilak eta ingurubilak, konbeni zaigu hemen aipatzea ingurubilaren berezitasun sinbolikoa. Hona, adibidez, zer dioen O. BEIGBEDER-ek:

“(La spirale) exprime le relatif, ce qui a une fin, à l’opposé du cercle qui est une répétition indéfinie, ou encore le contact avec le réel qui aboutit à un échec, à la mort. La spirale est sujette à des variations importantes selon la direction de sa terminaison, soit intérieure, soit extérieure.”

Ikus ere J. CHEVALIER eta A. CHEERBRANT in *Dictionnaire des symboles*:

“Elle manifeste l’apparition du mouvement circulaire sortant du point originel; ce mouvement, elle l’entretient et le prolonge à l’infini: c’est le type de lignes sans fin qui relie incessamment les deux extrémités du devenir...”.

(63) Lehendabiziko hutsak, lehendabiziko “bekatu”-ak die beren biluztasunaren ahal-keak ekartzen, Paradisua berdenboran desagertuz. (Ikus *Bible de Jerusalem* “Genèse” III 7tik 24arte).

(64) Ikus M. ELIADE:

“Car la récolte symbolise la Création, la manifestation triomphale d’une forme jeune, riche et parfaite. La “perfection” se trouve aux commencements, *ab origine*; on espère, en conséquence, retrouver les réserves vitales et les richesses germinatives qui s’étaient manifestées pour la première fois, *in illo tempore*, par l’acte grandiose de la création.” (in *op. cit.* 229 àr.).

b) *Familian*: azpimarratzekoa da Pater Familias boteretsuaren andre eta haurrak ontasunetan sartzen direla:

“Badut andrea, badut semea
badut alaba ere nik,”

eta honekin pareka ditzakegula neurtitz hauek:

“(...) Zikiro, bildots guriak.
Ahuntzak eta ardiak,
Nereak dira guziak!”

Abereen edertasunaren garantiak ematen bazaizkigu ahurtraka, haien kolore eta gizentasuna goraiapatuz, emaztearen garantia lau neurtitz pro-saiko eta irriegangarri batzutan atzematen den “xingar hezuri”aren desti-noak du neurtuko:

“Giristino bat ona dut hartu
nik emaztea hartzean;
Ez du mehe egunean
Sartuko uste gabean
Xingar hexur bat eltzean.”

Harrigarria da ere ikustea nola aitamen bikotea, berriz agertzen den seme-alabarenarenean.

Piarres semea, aitaren idurikoa baldin bada (“baitu nere egitea”), Kattalin, alaba, amaren potreta da (“Begiak ditu amak bezala”).

Ganarreko oparitasunak, azienden edertasuna eta osasun osoak, gero-ko ezezaguntasuna kasatzen duten bezala, aitaren iduriko seme baten izateak etxaldearen bizia segurtatzen du:

“Goizean goizik bazken erdira
badarama artaldea,
Baitu nere egitea,
Segituz nere bidea,
Ez du galduko etxea.”

Eta amaren idurikoa den alabaren bitartez, biharko emazteak ukanen duen joritasuna (65) zaigu seinalatua:

“Uste dut denborarekin
Andre on bat dion egin.”

(65) Lurraren joritasun, oparotasunarekin, pareka genezakeena.
Gai horri buruz, ikus ORTIZ-OSESEN *El matriarcalismo vasco*.

Mundu horretako seguritatearen oinarri, zutabeetarik bat, izanen da erlisioea, bere formalitatearen aldetik (manamenduarekin kunplitu behar da, sozial itxura da inportanteena) ikusia:

“Ez dugu behar lurrean,
Aise bizirik etxean,
Utzi laguna gabean;”

Erlisioea, beraz, moral konbentzionalaren justifikatzale eta garantia bezala (emazte “garbiak” (66) erritu girixtinoak ongi kunplitzen ditu) aipatua izanen zaigu, barneko senditze bat bezala, bidaia espiritual bat baino gehiago.

Mundu horren bertze zutabea lana izanen da, bakarrik lurraren ontze bezala, erran nahi da laborariaren lana (67).

Laborariaren lana, sasoinen arabera egiten da, eguraldiak errespetatu, landareen zikloaren arabera.

Lurrari hurbil bizi denak badakizki udan gibeletik, neguak datozela eta neguen atzetik uda berriak, sortzeari, heriotzea lotzen zaion betiereko harian bezala...

(66) Gure kantuan ikusten dugunez, andrea *ona* da girixtinoa delakotz. Ikus A. ORTIZ-OSSEN oharpena:

“Hay (...) textos en los que, ya de acuerdo a la mitología judeocristiana y grecoromano-occidental, se declara simplemente como “bueno” al hombre y como “mala” a la mujer: en el relato de “Marimunduko”, por si fuera poco, se declara al varón del relato como cristiano fiel, mientras que la mujer arquetípica del mismo —nada menos que Mari en persona— es declarada como *gentil*.” (in *op. cit.* 92 or.).

(67) Ez lana Adameren hutsaren kastigu bezala (ikus in *op. cit.* “Genesisia III, 19”). Hemen aurkitzen dugun nekazal lanaren berezitasuna pareka genezake J. CAZENAVEK J.P. DUVOISENEN *Laborantzako liburuaz* dioenarekin:

“En somme, le paysan agit sur la partie de la nature qu’il a pris soin de circonscrire et d’aménager au mieux de ses possibilités. Mais cette domination doit s’exercer de manière compétente et attentionnée. Ce n’est qu’au prix de cette attitude de sympathie active à l’égard de la nature que le paysan est en mesure de tirer le meilleur part de son patrimoine. Pour la plupart créatrices, ces activités sont le reflet à l’échelle humaine de l’activité divine. Le paysan est, selon J.P. Duvoisin, la main fidèle de Dieu dans sa création. (...):

“Laboraria Jainkoaren obretan hari da...” (43 or.) (...).

Avec cette référence à la volonté divine, Jean Pierre Duvoisin nous offre l’image d’un monde clos aux frontières clairement établies. C’est dans ce cadre là que le paysan intervient.” (in *Nature et vie rurale de J.P. Duvoisin: La figure du paysan*” 84/85 or.).

Gure kasuan, erran genezake aitaren arketipoarekin batera (nekazarria patriarka bat da) eta honen garaille azkenean (denboraren egitura borobilezkoa da), beti amaren arketipoa dela (Ama-lur).

Eta dio poetak:

“Galdegiten dut grazia
Dudan bezala hasia
Akabatzeko bizia!”

Azkenean, Patriarka, Elizanbururen Laborari boteretsu eta itzalik gabea, Ama Lurraren seme baita, Ama Lurraren sabel epelean pausatu nahi baitu, zirrikaren borobil gerizailearen garrantzitasuna berriz ere baieztatuz (68)...

AIPATUAK DIREN LIBURU ETA LANEN BIBLIOGRAFIA

- ARKOTXA Aurelia, 1990. *Imaginaire et poésie dans Maldan behera de Gabriel Aresti (1933-1975)*, Tesi doktora, Michel de Montaigne Bordeaux III Unibertsitatea, Bordeaux.
- BACHELARD Gaston, 1980. *La terre et les rêveries du repos*, Ed. José Corti, Paris.
L'eau et les rêves, 1979. Ed. José Corti, Paris.
- BARANDIARAN José Miguel de, 1960. *Mitología vasca*, Ed. Minotauro, Madrid.
Diccionario de mitología vasca, Obras completas (tomo I), Ed. La Gran Enciclopedia Vasca.
- BEIGBEDER Olivier, 1989. *Lexique des symboles*, Ed. Zodiaque.
1978. *Bible de Jerusalem*, Nouvelle édition Desclée de Brouwer, Paris.
- CAZENAVE Jon, 1991, *Nature et vie rurale dans Laborantzako liburua de J.P. Duvoisin: la figure du paysan*, D.E.A. Département Interuniversitaire d'Etudes Basques, Bayonne.

(68) Ikus ere J.B. ELIZANBURUEN *Eskuara eta eskualdunaken* azken bertsuaren lehen-dabiziko bi neurtitzetan nola “itzala”k borobil bat marrazkitzen duen:

“Nola birundan arbolari da segitzen itzala,
Bakotxak hala sor-lekua beti maita dezala;”

(In *op. cit.* 44 or.).

Nere etxearen azken hiru neurtitzek gogora arazten dute ere J.I. HARTSUAGAK euskal mitologiaren irudirapen kosmologikoaren “biribil”tasunaz dioena (honen berezitasuna, haren iduriz, “egonzaletasun”-ean finkatzen baita indoeuroparrarena kezkan eta mugikortasunean finkatzen den gisan):

“Euskal mitologiaren irudirapen kosmologikoak egonzaletasuna du ondorio nagusi: Egonzaletasun espaziala (...), eta egonzaletasun espirituala halaber, mundu osatu, biribil eta buruasean biziuz gero, ezereen bila inora jotzeko beharrik ez dagoen heinean: Norbere etxean jaio, bizi eta hiltzen da, eta hil ondoren, etxeko beste hildako guztiekin hiltzen da, eta hil ondoren, etxeko beste hildako guztiekin batera eta etxeko bizidunekin batera elkarkidetzan bizi ohi da, azken hauek, lurpeko bizitzan behar diren argi eta janariak eskuraeraziko dietelarik hutsegín gabe.

Bizitza, heriotza eta heriotzondoaren zikloa hesparru kosmiko buruase bakoitzaren barrutian hasi, garatu eta burutzen da.” (in *Euskal mitologia konparatua* 171 or.).

- CHAMPEAUX Gérard de et STERKX dom Sébastien o.s.b., 1981. *Introduction au monde des symboles*, Ed. Zodiaque.
- CHEVALIER Jean et GHEERBRANT Alain, 1974, *Dictionnaire des symboles* (4 tomes), Seghers Paris.
- DURAND Gilbert, 1979, *Structures Anthropologiques de l'Imaginaire. Introduction à l'archétypologie générale*, Ed. Bordas, Paris.
- ELIADE Mircea, 1989, *Aspects du mythe. Gallimard. Folio essais. Paris.*
1990, *Mythes, rêves et mystères*. Gallimard, Folio essais, Paris.
1979, *Images et symboles-essai sur le symbolisme magico-religieux*, Avant propos de G. Dumézil. Gallimard, Paris.
- ELIZANBURU Jean Baptiste, 1991, *Ikusten duzu goizean eta bertze...; Ikas. Bayonne. Etxea ou la maison basque* (ouvrage collectif), Ed. Lauburu, 1980.
- FRANZ Marie Louise von, 1983, *Nombre et temps-psychologie des profondeurs et physique moderne-* (frantses itzulpena: Francine Saint René Taillandier), Ed. La Fontaine de Pierre. *Gabriel Arestiren literatur lanak*, 1986 (2 eta 5. aleak). Susa. Donostia.
- HARTSUAGA Juan Ignacio, 1987, *Euskal mitologia konparatua*, Kriselu, Donostia-San Sebastián. 1984, *Hil Harriak. Actes du colloque international sur la stèle discoïdale, Musée Basque-Bayonne* (8, 9, 10 Juillet 1982). Musée Basque. Bayonne.
- JUNG Carl Gustav, 1982, *Les racines de la Conscience*, (Frantses itzulpena Y. Le Lay eta E. Perrot), Ed. Buchet/Chastel, Paris.
Types psychologiques, 1986 (Frantses itzulpena: Y. Le Lay). Georg Editeur S.A. Genève.
Métamorphoses de l'âme et symboles. Analyse des prodromes d'une schizophrénie, 1987 (frantses itzulpena: Y. Le Lay). Georg ed. S.A. Genève.
L'homme à la découverte de son âme, 1966 (frantses moldakuntza: Dr. Roland Cahen), Petite Bibliothèque Payot, Paris.
Dialectique du moi et de l'inconscient, 1990 (frantses itzulpena: Dr. Roland Cahen), Gallimard, Folio-essais.
Essai d'exploration de l'inconscient, 1989, frantses itzulpena: Laure Deutschmeister). Gallimard. Folio-essais.
Ma vie, 1990, Souvenirs, rêves et pensées recueillis par Aniela Jaffé. (Frantses itzulpena: Roland Cahen eta Y. Le Lay), Gallimard. N.R.F.
- KORTAZAR Jon, 1985, *Altxorrak eta bidaiak. Haur kontabideen azterketak*. (Talde lana), Ed. Desclée de Brouwer S.A. Bilbao.
- LAFITTE Pierre, 1953, *Lexique français-basque. (Navarro-labourdin littéraire)*, Ed. Hestia. Bayonne.
- LHANDE Pierre S.J., 1926, *Dictionnaire basque français*, Ed. Gabriel Beauchesne, Paris.
- MICHELENA Luis, 1985, *Lengua e historia*, Paraninfo, Madrid.
- OIHENART Arnaud (d'), 1657, *Les Proverbes basques plus les poésies basques du même auteur*, Paris, Euskal erakustegia, Baiona (Argazkikopia).
- ORTIZ-OSÉS Andrés, MAYR Franz-Karl, 1988, *Matriarcalismo vasco*, Universidad de Deusto, Bilbao.
- ORTIZ-OSÉS Andrés, 1985, *Antropología simbólica vasca*, Anthropos Editorial del Hombre, Barcelona.
- ROCHETERIE Jacques (de la), 1984, *La symbologie des rêves-La Nature* (tome I), Ed. Imago Paris.

- SATRUSTEGI Jose María, 1980, *Mitos y creencias*, Ed. Txertoa, San Sebastián.
- TOURNIER Michel, 1972, *Vendredi ou les limbes du Pacifique*, Gallimard Ed. Folio, Paris.
- VINSON Julien, 1898, *Revue de Linguistique et Philologie Comparée*, Tome 31, 15 Juillet (argazkikopia). *Yi King. Le livre des Transformations*, (Richard Wilhelm artzain protestantak 1924.ean, alemanez ezagutzera eman zuen bertsioaren frantses itzulpena Etienne Perrot-ek egina). Médicis. Paris 1990.

Artikuluak:

- ARKOTXA Aurelia, "Maldan beheraren irakurketa baten inguruan" in *Hegats IV*, Donostia, 1991.
- BIES Jean: "Chamanisme et littérature" in *Cahiers de l'Herne: Mircea Eliade*. Editon de l'Herne, Paris 1985.
- ETCHEHANDY Marcel (F.): "Les stèles discoidales basques" in *Zodiaque cahiers*.
- GUILBEAU Dr.: "Eskualdun Herritar Maiteak"/"Chers Compatriotes Basques" in Julien VINSON. *Revue de Linguistique Comparée*, tome 31, 15 Juillet 1898.
- KORTAZAR Jon: "Barrutiaren Gabonetako Ikuskizuna in *Altxorak eta bidaiak*.
- LAPLACE Georges: "Sépultures et rites funéraires préhistoriques en vallée d'Ossau (Ursari)" in *Hil Harriak. Actes du colloque international sur la stèle discoïdale. Musée Basque Bayonne (8, 9, 10 Juillet 1982)*. Bayonne, 1984.
- PEILLEN Txomin: "Civilisation et idéologie vasconiennes" (fotokopia).